

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA
IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA

BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

KOMUNIKAZIO-EREMUA EUSKARA ETA LITERATURA

2015eko MAIATZA

IZEN-DEITURAK: _____

SINADURA:

JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, birpasatu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.

Superman Beltza



Didier Yves Drogba Tébily, Abidjanen (Bolikosta) jaio zen, 1978. urteko martxoaren 11n. Ume **bihurria** 5 urte zituelarik, Frantziara bidali zuten gurasoek, etorkizun **oparogo**aren esperoan. Bertan osabarekin bizi izan zen 3 urtez, bere herrira bueltatu arte. Denboraldiak eman zituen Europa eta Afrika artean, Drogba familia Parisen finkatu zen arte.

Bere jaioterriko aparkalekuetan futboleant jolasten ematen zituela egunak dio “Didik”. Agian, luxurik gabeko entrenamendu horiek lagundu zioten bere ametsa egia bihurtzen, Le Mans Ligue 2.ean (Frantziako bigarren maila) debuta egin zuenean. Futbolari profesional gisa hainbat taldetan jokatu

zuen: Olympique Marseillen, Txinako Shangai Shenhuan, Turkiako Galatasarayn eta Chelsean. Azken honekin, 3 liga eta 8 kopa irabazi zituen, baita goleatzailerik onenaren beste bi sari ere jaso zituen.

Baina “Titoren” (amamak deitzen zion bezala) garaipenik onenarentzat ez dago metalezko trofeorik. 2005. urtean, Bolikostako selekzioak Zambia 3-1 gairiditu zuenez, Munduko Futbol Txapelketarako sailkatu zen lehenengo aldiz. Poza eta algara momentuak bizi ziren “Elefanteen Herrian”. Baina, bat-batean, ospakizunak **eten** egin ziren telebistan, partidua bukatu eta minutu gutxitara. Kamerak irabazleen aldagela barruan sartu eta jarraian Didi kapitainak mikrofonoa hartu eta bere taldekideekin batera **belaunikatu** zen, eta telebistari begira zegoela, honako hitz hauek esan eta nazio oso bat **isilarazi** zuen: “Iparraldeko, hegoaldeko, mendebaldeko eta ekialdeko Bolikostako biztanleok, belauniko eskatzen dizuegu batzuk besteoi barkatzea. Gurea bezalako herri handi bat ezin da kaosera errenditu. Antolatu ditzagun hauteskunde aske batzuk, arren”.

Ipuin polit bat balitz bezala, Ebanozko Erraldoiaren hitz magikoek, 3 urte eta 4.000 hildako eta gero, su **eternaldi** batera eraman zuten Bolikostako guda zibila.

Egoera belikoa **baretu** zenean, Marfildarren herrialdean, haren fundazioak 5 ospitale eraiki zituen eta kudeatzen hasi zen, bertan, ume gaixo guztiek arreta-zerbitzu **doakoak** izan ditzaten.

Hor bukatzen da Drogba futbolaria eta hasten da mitoa eta heroia. Agian, Hollywoodeko produktorearen batek bloga irakurriz gero, “remake” bitxi baterako inspirazio gisa hartuko du istorioa. Christopher Reeve-en **oinordeko** bikaina izango



litzateke Didier jauna. **Sinopsia** honako hau izan liteke: *Super botererik gabeko Supermanak gerrate bat eten du. Afrikaren ordezkariak armak suntsitu ditu inor zauritu gabe. Ezer ez da ezinezkoa berarentzat, bihotz oneko gizona, guztion eredia ... Superman Beltza.*

(moldatua) <http://www.argia.eus/blogak/opio-errebeldea/2015/01/30/superman-beltza/>

GALDERAK

1. Idatzi baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren. (1 puntu)

1. Gurasoek Frantziara bidali zuten oso ume bihurria zelako.
2. Hasiera batean, Didi bakarrik bizi izan zen Frantzian.
3. Parisen hasi zen futbolearen entrenatzen, txikitan.
4. Frantziako ligan eta munduko beste hainbat taldetan jolastu du, baina Chelsearekin lortu ditu bere saririk handienak.
5. Drogbak futbolearen eskuratu du bere garaipenik handiena.
6. Bere garaipenik onena izan da Zambiano selekzioaren aurkako partidua irabaztea eta bere taldea sailkatzea.
7. Bere herrialdea baretzeko ahalegina egin zuen selekzioarekin batera.
8. Bolikosta gerratean zegoen eta hildako asko egon ziren gerrate hartan.
9. Modu demokratikoan aritzeko eta Bolikostako biztanleen boza entzuteko hauteskunde libreak eskatu zituen.
10. Drogba futbolariak diruz lagundu du ospitaleak eta umeei laguntzeko zentroak eraikitzen.

2. Elkartu beheko koadroan testuko hitzak (letra lodiz eta azpimarratuta dituzu bertan) eta euren sinonimoak edota esanahiak. Erabili letrak, adibidean bezala. (1 puntu)



TESTUKO HITZAK	BALIOKIDEAK, SINONIMOAK
(adibidea) bihurria	a
1. oparoa	
2. belaunikatu	
3. isilarazi	
4. su etenaldia	
5. baretu	
6. arreta-zerbitzuak	
7. doakoak	
8. oinordekoa	
9. sinopsia	
10. suntsitu	

Baliokideak / sinonimoak

- a. gaiztakeriatan eta okerkeriatan ibiltzen den umea
- b. makurtu, belaunak behearen gainean jarri zerbait eskatzeko
- c. ordaindu gabe
- d. laburpena
- e. ona eta ugaria
- f. mututu, norbait isiltzea lortu
- g. lasaitu, trankildu, sosegatu
- h. apurtu, desegin
- i. gerra baretzea, denboraldi batez borroka moztea
- j. egiteko batean beste baten ondorengo dena.
- k. gaixoak eta herritarrak zaintzeko lekuak, baliabideak, anbulatorioak...

3. Zein da testuaren helburua? (0,5 puntu)

- a. Ipuin bat kontatzea, futbolari bat protagonista duena.
- b. Albiste bat kontatzea Bolikostako gerrari buruz.
- c. Pertsonaia bati buruzko informazioa eta hark eginikoak kontatzea eta idazleak bere iritzia adieraztea.

4. Honako hauetatik zein da testuaren laburpenik egokiena? (1 puntu)

- a. Supermanek bezala jokatu du Dider Drogba futbolariak betidanik, gauza handiak egin dituelako beti bere herriaren alde, esaterako, bere taldekoekin Zanziaren kontrako partidua irabazi zuen.
- b. Didier Drogba futbolariak arrakasta handia lortu du futbolari gisa, baina bere jaioterrian lortutakoa da bere garaipenik handiena, hala gerrate zibila etetea lortu zuen eta, gainera, berari esker ospitaleak eta laguntza zerbitzuak sortu dira bertan. Super heroia da.



- c. Didier Drogba futbolariak oso ospe handia lortu du Europako futbol taldeetan bai eta bere herrialdean ere, Bolikostan, Superman beltza dela diote bertan, Zambiaren kontrako partidua irabazi zuelako eta denentzako hauteskunde libreak eskatu zituelako.

5. Zein da esapide hauen esanahia? (1 puntu)

5.1. *Agian, luxurik gabeko entrenamendu horiek lagundu zioten bere ametsa egia bihurtzen.*

- Txikitan, aparkalekuetan eta edonon asko jolastu izanak lagundu zion goi mailako futbolaria izaten.
- Frantziako bigarren mailako ligan luxurik gabe jokatu izanak lagundu zion mundu mailako beste taldeetara iristen.
- Bere ametsa zen Frantzian bizi izatea eta lortu zuen asko entrenatu zuelako.

5.2. *Baina "Titoren" garaipenik onenarentzat ez dago metalezko trofeorik.*

- Futbolariak futbol garaipen ikaragarria lortu du eta ezin dute horretarako trofeorik topatu.
- Zanbiaren kontrako garaipena ikaragarria izan zen baina ez zioten ezer eman.
- Hain da handia lortu duena, ez dago zerekin ordaindu, ezin da gauza materialekin ordaindu, larregi balio du.

5.3. *Gurea bezalako herri handi bat ezin da kaosera errenditu.*

- Guk gehiago merezi dugu: liskarra eta gerra ezin dira gure herriaren jabe izan.
- Gure herria ezin izango du kaosak harrapatu.
- Gerran daude eta bere herri handia ezin da errenditu.

5.4. *Hor bukatzen da futbolaria eta hasten da mitoa eta heroia.*

- Futbolaria baino askoz gehiago da askoren iritziz.
- Ez du futbolean jolasten jada.
- Mito gisa hasi du karrera berria.

6. Didier Drogba Afrikako herrialde batean jaio zen, Bolikostan. Zein dira herrialde hori aipatzeko testuan ageri diren beste hitz batzuk? (0, 5 puntu)



1.

2

7. Testuaren arabera, nor da Ebanozko Erraldoia? Biribildu erantzun zuzena. (0,25 puntu)

- a. Bolikostako futbol selekzioa.
- b. Futbol taldea, selekzioa, garaipen handi-handi hura lortu zuelako.
- c. Gure protagonista, Didier Drogba.

8. Nor da Christopher Reeve? Testuaren arabera, zer ondoriozta dezakezu? Biribildu erantzun zuzena. (0,25 puntu)

- a. Beste futbolari bat, Amerikakoa.
- b. Hollywoodeko filme zuzendari bat.
- c. Superman rola egiten duen aktorea, ezagunena.

9. Zergatik dio idazleak Didier Drogba Superman beltza dela? Badu superbotererik? Erantzun zure hitzekin testuak ematen dituen informazioak baliatuta. (0,5 puntu)




10. Euskararen morfologia. Sailkatu testuko hasierako bi paragrafoetan dauden hitz hauek gramatika kategoriaren arabera. Jarri gurutzea adibidean bezala. (0,5 puntu)

	<i>izena</i>	<i>izenondoa</i>	<i>izenlaguna</i>	<i>aditza</i>	<i>erakuslea</i>	<i>adizlaguna</i>
<i>bihurria</i>		X				
1. <i>etorkizun</i>						
2. <i>osabarekin</i>						
3. <i>jaioterriko</i>						
4. <i>dio</i>						
5. <i>horiek</i>						

11. IDAZLANA (3 puntu)

Honako iragarki hau irakurri duzu herriko aldizkarian.



Film horretan hartu nahi duzu parte, irrikitan zaude! Beraz, mezua idatziko duzu. Gutxienez, 120 hitz idatzi behar dituzu.

Kontuan hartu honako aholku hauek:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula: 120 hitz.
- Zirriborrea egitea komeni zaizu ideiak antolatzen laguntzeko.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.
- Zirriborrea azterketarekin batera eman.
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara zuzena, egokia eta aberatsa erabili duzun

Besteak bes

- Idatzi hasierako agurra.
- Esan zergatik idazten ari zaren.

- Eman zure datuak, hau da, idatzi zure biografia laburra.
- Azaldu nor den zure heroia eta zergatik gustatzen zaizun.
- Azaldu nola mozarrotuko zaren.
- Adierazi zure interesa filmean parte hartzeko.
- Idatzi bukaerako agurra.

Idatzi hemen zure mezua

